

MUTUEI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Amaia Martin Garin Irabazi Donostia udal taldeko zinegotziak eta Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, Mutuei buruzko mozio hau aurkezten dute, Udalbatzan azter dadin. Mozioa hurrenez hurren 2018ko apirilko eta aurtengo Zerbitzu Orokorretako Batzordeetan aztertutako interpelazioen ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Mutuei buruzko lege berriaren ezarpenarekin eta hari dagokion behin-behineko ezgaitasunen inguruko dekretua indarrean jartzearekin, aukera berriak ireki ziren Udalak langileen osasun-laguntza osasun sistema publikoaren bidez egiteko. Izan ere Udaleko Langileen Batzordeak horren inguruko eskaerak egin ditu, gertakizun guztien kudeaketa GSINekin kontratatzeko eta osasun-laguntza Osakidetzak egiteko. Zilegi da guztiz Udal Gobernuak zein corpus teknikoak gaia sakontasunez eta bere termino guztietan aztertzeko denbora hartzea. Azterketa horren aitzakiarean erantzun zuen Udal Gobernuak Langileen Batzordeak eginiko eskaerei zegokien erantzuna eman ez izana 2017ra bitartean.

lazko martxoaren 22an Udaleko Langileen Batzordeak Udalak eta Mutualiaren artean sinatutako hitzarmenari buruzko idatzia luzatu zuen. Hitzarmenak urtero berritzeko aukera ematen du, Udalak bere etena iragartzen ez badu. Langileen Batzordeak salatu zuen Udal Gobernuak berriz ez diola kasu egin Langileen Batzordearen gehiengoaren eta langile gehienen eskaerari, alegia, lan istripuen eta gaisotasun profesionalen artatzea sistema publikoan egitea, alegia, laneko kontingentziak Osakidetzaren bidez eta GSINren bidez.

Salaketa Pertsonaleko Sailaren komunikazioaren ondoren ailegatu zen, Udal Gobernuaren erabakiaren berri ematen zuena, Mutualiarekin egina dagoen hitzarmena ez eteteko asmoa azaltzearekin batera horretarako arrazioen berri emanez. Arreta deitu zuen komunikazioak egiten zuen azalpenaren soiltasuna, Mutua patronalen defentsa hutsa egiten baitzuen, bertan geratzeko irizpide objektiboetan sakondu gabe eta, ondorioz, Osakidetzara itzultzeko aukera baztertuz.

Gogoratu behar da Mutuen finantzaketa lan istripuei dagozkien- eta Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak biltzen dituen primen bidez egiten dela, horretaz, langileen beraien dirua da, kotizazioen bidez jasoa eta erakunde pribatuaren eskuetara doana, osasunaren sistema publikoa indartzera joan beharrean,.

Izan ere Mutuak entitate pribatuak dira, enpresarien elkarteak, Gizarte Segurantzarekin harremanetan lan egiten dutenak, lasn osasunean arreta emanez eta funts publikoak kudeatuz. Udalaren presentzia Mutualian, Donostiako Udala ere "enpresaria" den aldetik ulertu behar da, ez bestela.

Bestalde Osalanek eginiko ikerketa baten arabera, gaixotasun profesionalak artatzerakoan Osakidetzan sortzen den kostea Erkidego Autonomikoaren osasun gastu osoaren %3,3 da, 106 milioi euro, Gaixotasun Profesionaltzat joz gero mutuek ordaindu beharko luketenak eta ez, osasunaren zerbitzu publikoak. Eta zentzu berean azpimarratu behar da, gastu irregularrak direla-eta, estatu espainol osoan Gizarte Segurantzak mutuei 142 milioi euro eskatu dizkiela eta horietatik 728.883 euro Mutualiari dagozkiola.

2018ko otsailean lehen aldiz plazaratu zuen egungo Udal Gobernuak gaiaren azterketa: mutuak non erabiltzen diren, beren definizioa, mutuak eginiko lan ona. Udal Gobernuak egun indarrean duen kontratuaren betekizuna egokia izan den baloratu du, erantzun epeak, gaisoen iritziak eta abar kontuan hartuta: zer esanik ez dago egiten dena ongi eta egoki baloratu dela, bestela zuzenean kontratua eten beharko lukeelako. Aldiz, zergatik udal langileen osasunaren zaintza egiten den mutuekin eta ez sistema publikoarekin, orain aukera hori egonik; zeintzuk lirakeen desberdintasunak eta onurak bai Udalarentzat bai langileentzat, alde ekonomikotik, osasunaren ikuspuntutik edo kalitatearen aldetik, eta abar... hori guztia ez da aztertu.

Egindako eskaera oraindik ere erantzun gabe zegoelakoan eta Mutualiarekin dagoen hitzarmenaren epea iraungi aurretik, Udal Gobernuak gaiari bere osotasunean heldu behar

ziolakoan interpelatu zaio berriz, balora dezan ez soilik egun egiten dena Mutuialiarekin baizik eta egin daitekeena sistema publikoaren baitan. Udal Gobernuak hautu politikoa egin du, ez azterketa teknikoa, hala azaldu nahi izan duen arren.

2018a bukatu aurretik Donostiako Udaleko Langileen Batzordeak berriz eskatu du, epea iraungi aurretik Udal Gobernuak sistema publikoaren aldeko hautua egin dezan. Zehazki, 35/2014 legearen xedapen iragankorraren babesean eskatu dute "Udal langileen eta Langileen Batzordearen erabakia errespetatuz, Gobernu Batzordeak onar dezala eta beharrezko tramiteak egin ditzala, Mutuialiarekin sinatutako elkartze-hitzarmena salatzeko. Salaketa hori 2019ko otsailaren 28a baino lehen egitea ere eskatzen dute, kontratu horretan ezarritako luzapena gauzatu ez dadin, eta Lan Istripu eta Gaixotasun Profesionaletik eratorritako kontingentziak mutuaz aldatzeko, hauen kudeaketa Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak (GSIN) eta osasun laguntza Osakidetzak egin ditzaten.

inguruko udalek -hala nola, Pasaia, Errenteria, Oiartzun, Hernani edo Lezo-, lan kontingentziei aurre egitea eta dagokien artatze medikua Osakidetzaren bidez egiten dutela eta beste batzuk bide hori jorrazekotan daudela, hala nola Iruñea, Osasunbidearekin kontuan hartuta, Donostiako udaleko langileen osasuna osasunaren sistema publikoaren esku egotea ez da soilik desiragarria baizik eta guztiz posiblea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duten zinegotziek aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

KONTROL MOZIOA

Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio 2019tik aurrera Udaleko langileen lan istripu eta gaixotasun profesoaletatik eratorritako kontingentzien estaldura Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren bidez eta beren artatze medikua Osakidetzaren bidez egiteko, Mutuialiarekin duen hitzarmena otsailaren 28a baino lehen denuntziatu ondoren, guzti horretarako egin beharreko kudeaketak eginez.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia

Amaia Martin Garin
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia